

Fecha: 16/11/2010
Medio: Urola Kostako Hitza

2 || urola kostako hitza || 2010eko azaroaren 16a, asteartea

Zarautz

Udalak bizikletak erregistratzeko sistema jarri berri du martxan. Era berean, herriko lau dendatan txipak jartzeko aukera izango da. Modu horretan, lapurretak gutxitu ahal izango dira.

Bizikleta bakoitza bere jabeari

Amaitasunak

Lehen besteen ondasunekiko errespetua zegoen». Beste garaiak ekarri ditu gogora herritar batek: «Duela urte gutxi ez zen hainbeste bizikleta desagertzen». Etxepean utzi zuen zarautzar horrek bere bizikleta: «Goizean kalera joateko erabili nuen, eta une batez bizikletak uzteko etxepan dugun tokian giltzatu nuen. Bueltatu nintzenean, jada ez zegoen utzitako tokian». Zoritzarrez, hainbat eta hainbat dira egun lapurretan berri ematen duten herritarrak. Arazo horri irtenbidea emateko ekimen berria jarri du martxan Udalak, herriko hainbat dendarekin elkarlanean.

Helburua bizikleta lapurretak ekiditea da, eta ostutakoak bilatzen laguntzea. Hala, aurrerantzean bizikletak erregistratu ahal izango dituzte jabeek. Horretarako Udaltzaingoaren egoitzara jo beharko dute, bertan inprimakia jaso eta datu pertsonalekin bete, bueltan eman. Gerora, Udalak posta arruntez erregistro txartela bidaliko diete eskaera egin dutenei, doan. Txartela bizikletari itsatsi beharko diote erabiltzaileek. «Modu horretan bizikletak zenbakia izango dute, matrikula modura, eta erraz identifikatu



Zarautzen bizikleta ugari desagertu ohi dira, udan batez ere. AMAIA VENTAS

ahal izango dira hala», adierazi du Udaltzaingo zinegotzi Alejandro Vazquezek.

Era berean, txip modukoa jartzeko aukera ere izango dute zarautzarrek. Eizagirre, Alkorta, Urrestilla eta Ibai Ondo bizikleta dendatan ezarriko dituzte gailuok, 19 euro ingururen truke.

Zortzi hilean 210 lapurreta

Datuen arabera, urtariletik abuztura bitartean 210 salaketa jaso zituen Udaltzaingoa. Lapurtutako 67 bizikleta aurkitu dituzte, eta 32 soilik bueltatu dizkiete jabeei. «Nik, ordea, ez dut neurre bizikletaren berririk izan.

Udaltzaingoari lapurretaren berri eman nion, baina oraindik ez dut jaso erantzunik. Asko beste herritara eramaten dituztela jakinarazi zidaten. Oso zaila da horiek berreskuratzea», azaldu du lapurtutako bizikletaren jabeak. «Pena handia eman zidan; izan ere, bizikleta hori aitak oparitu zidan, eta gainera, egunero erabiltzen nuen hara eta hona joateko», nabarmendu du.

San Pelaio egunean lapurtu zioten ohiko garraiobidea. «Uda hasiera zen, lapurreta gehien izaten den garaia». Kanpinean ostatu hartzen duten bisitarien etorrerarekin lapurretak areagotu

egiten direla jakinarazi du herritarrak. Hori dela eta, Talaimendi izan zen behatu zuen lenenengo tokia: «Askotan mendi magalean agertzen dira desagertutako bizikletak». Ez zuen zorterik izan, ordea. Beste hainbat lekutan ere begiratu zuen, Azken Portu, Vista Alegre eta Itxasmendi auzoetan, esaterako. Haietan ere ez zuen bizikletaren arrastorik topatu.

Sistema berriaren onurak

Martxan jarri berri duten kanpainak bizikleten erabiltzaileei onurak ekarriko dizkiela ziur dago zarautzarrak: «Horri esker, lasai aparkatu ahal izango dugu bizikleta». Era berean, duela urte batzuk Zarautzen indarrean zegoen sistema berreskuratuko dela adierazi du: «Txikiak ginenean, udaletxean oinarritzko kanona ordainduz gero, patentea deritzon itsaskorra ematen ziguten». Itsaskorra zeramaten bizikletak garaiko segurtasun zerbitzuek «kontrolpean» izaten zituztela gogoratu du herritarrak. «Eraginkorra zen sistema, giltzatu gabe egonda ere ez zuten bizikletarik lapurtzen. Egun, ordea, egoera aldatu egin da, lapurretek gora egin dute». Sistema berriak lapurreta ugari ekidingo dituela gehitu du.

